

Jainko Antzerki hordia

SUMENDIAREN AZPIAN

Izenburua. *Sumendiaren azpian*. Jatorrizko izenburua. *Under the Volcano*. Itzultzailea. Karlos del Olmo. Argitaratze urtea. 2008. Argitaletxea. Alberdania/Elkar (Literatura Unibertsala bilduma).

ANDER ARANA

“LAN hau antolatzeko laguntza” eskatu zion, gutun baten bidez, Malcolm Lowryk Jainkoari, “bide berriak urratu eta beharrezko denetan arauak apurtu” nahi zituelako eleberrri “kitzikagarrri, ekaiztsu eta burrunbatsu” honekin. Karlos del Olmo itzultzaileak ere bere egin zuen eskaria, “eleberria itzultzeak sortutako

nekeak arintzeari eta lan itzuliaren beharrezko argitasunari dagokienez”. Eta irakurleak berak ere sufrituko du maisulan hau osorik irakurtzeko eta bere osotasunean behar bezala ulertzeko, Lowryk eleberria idaztean eta Karlos del Olmok itzulpena egitean sufritu zuten bezala.

Sumendiaren azpian 1947an argitaratu zen lehen aldiz, baina eleberrriaren historia hamaika urte lehenago hasi zen, Lowry Mexikon jarri zenean bere lehen emaztearekin bizitzen, orduan hasi baitzen nobelaren lehen bertsioa idazten. Azken bertsioa –laugarrena– 1945ean bukatu zuen. Nobela idazteko prozesuan gorabehera han-

diak izan zituen: lehen emaztearengandik dibortziatu zen, hainbat editorek uko egin zioten nobela argitaratzeari eta sute batek bizi zen etxola erre zuen. Etxolarekin batera bere eskuizkribuak ere erre ziren, nahiz eta Sumendiaren azpian eleberrri artean argitaragabea salbatzea lortu.

Berez, Lowryren bizitza osoa izan zen gorabeheratsua, eta Karlos del Olmok sarreran gogorarazten digun legez, Lowryk erruduntasun handia sentitzen zuen eta bere burua mespretxatzen zuen, alkoholatan itotzeraino. Malcolm Lowry alkoholikoa baitzen, eta agian horregatik asmatu zuen hain ondo, frantseseko edizioari egin zion hitzaurrean aitortzen zuenez, “mozkorti baten egiazko historia idaztea”. Mozkorti hori Geoffrey Firmin kontsula da, eta nobelan bere bizitzako azken eguna –Defuntuen Eguna– kontatzen da, haren

delirium tremens etengabea. Kontsularekin batera daude haren anaia, Hugh, eta kontsularen emazte ohia, Ivonne, zeina kontsula abandonatu eta hamabi hilabetera itzuli baita atzera bueltarik gabeko harremana berreskuratzera. Geoffrey Firminen azken hamabi orduak hamabi kapitulutan emanak. Hamabi: ezin beste zenbaki bat izan, hamabiak Kabalan duen garrantzia ikusita.

Baina maisulan hau mozkorraldi etengabe baten kontaketa baino askoz ere gehiago da. Malcolm Lowryk zioen lan honek asmo poetikoa duela batik bat, eta, horrenbestez, behin baino gehiagotan irakurri behar dela, baldin eta lanaren ezkutuko esangura guztiak harrapatu nahi badira. Halatan, kontsularen mozkorraldi etengabeak gerrak eragiten duen mozkorraldi unibertsala adierazi nahi du, eta, ondorioz, kontsularen patuak

gizateriaren patua iradokitzen digu. *Sumendiaren azpian* aipu, erreferentzia, metafora eta alegoriaz josirik dago. Ez da harritzekoa, hortaz, itzultzaileak, beste hizkuntza batzuetara eginiko itzulpenetan ez bezala, horrenbeste oin-ohar baliatu izana. Beste kasuren batean irakurtzeko oztopo gerta zitekeena oso lagungarria baita kasu honetan, bestela ihes egin diezaioketelako irakurleari testuan zehar agertzen diren hainbat eta hainbat erreferentzia garrantzitsu, ezinbestekoak direnak Lowry bera eta bere obra ulertzeko: Danteren Jainko Antzerkia –aita Onaindiak euskaratua–, Hermann Melville, Conrad Aiken, Goethe, Gogol, Joseph Conrad edo espresionismo alemaniarra, zeinari omenaldi egiten baitzaio *Las manos de Orlac*, con Peter Lorre aldiro errepikatuaren bidez. Eta horren guztiaren lekuko, hor da, beti, mutu, Popocatepetl handia.